

Población refugiada: *reflejos y percepciones*



Laburpen exekutiboa

Ikerlan hau 2018ko urritik 2019ko otsailera bitarte egin zen, eta aztertu nahi izan ditu biztanleria hartzailearen erantzunak azken urte hauetan etorritako errefuxiatuekiko, azterketa kuantitatibo zeharkako baten bidez, zeinean bertako 408 pertsona helduk parte hartu baitzuten, gipuzkoarrak gehienak. Ikerlana Gipuzkoako SOS Arrazakeriako ikertzaileek egin dute -EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailera atxikitakoak-, Magdalena Bobowik eta Maitane Arnoso izan ditu koordinatzaile, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruztatu dute.

Ikerlanaren emaitzek erakusten dute ezen pena edo tristura bezalako emozioek gizarteko alde guztiei eragiten badiete ere, beste erantzun emozional batzuk atxikimendu ideologikoaren araberrakoak izaten direla: espektro politikoaren ezker alderako joera dutenen artean errespetuzko emozia zabalduagoa den artean, eskuin



Laburpen exekutiboa

alderakoek gehiago adierazten dute mespretxua. Halaber, moralagoak diren erru edo lotsazko emozioak nabarmenagoak dira ezker joerako partehartzaileen artean Europak errefuxiatuen “krisian” (edo humanitate krisian) izan duen jarrerarekiko; ordea, geroz eta eskuinerago kokatzen dena orduan eta harroago dago instituzioek emandako erantzunarekin.

Bigarrenik, ezaugarri kognitibozko erantzunetan, errefuxiatuekiko estereotipoak aztertu ziren, pertzibitutako antzekotasun kulturalak, haien akulturazio prozesuekiko exigentziak, hala nola eskubide berdintasunari buruzko jarrerak. Datuek erakusten dute ezen zentro-eskuineko ideologia lotuagoa dagoela errefuxiatuak moraltasun eskasarekin lotzen dituzten estereotipoekin, eta osagai hau izaten da oinarri eskubide berdintasuna ukatzeko orduan. Halaber, jende soslai horiek dira kultur arrakala handiena ikusten dutenak haien eta errefuxiatuen kultur ohituren artean, eta gizarte hartzailearen ereductara makurtzeko exigentzia gehien egiten dutenak integrazioaren bidean (arloan publikoan bezala arlo pribatuan). Bestalde, errefuxiatuen eta bertakoen edo beste atzerritar taldeen arteko desberdintasunei buruz, ezker eta zentro-ezkerreko jendeen artean adostasun gehiago dago migratzaileek eta errefuxiatuek eskubide berdinak izan behar dituztela.

Bestetik, ikerlanak jakin nahi izan ditu harrera politika desberdinei buruzko adostasunak eta desadostasunak. Oro har, emaitzek desadostasun gehiago erakutsi dute dependentzian oinarrituriko harrerarekin (asistentzia medikoa, jangelak antolatzea, etab.) eta adostasun gehiago autonomiara bideratutako harrera politikekin (diru laguntzak, partehartze politikoa, etab.), nahiz eta zentro-eskuin joerako pertsonen neurri horiekiko adostasun maila dezente apalagoak adierazi zituzten. Halaber, ikerlanean nabarmentzen da ezen instituzioek errefuxiatuei ematen dieten laguntza eskuinerako joera duten pertsonen gehiago pertzibitzen dutela, ezkererako joerakoek baino.

Errefuxiatuen harrerari begira dauden portaera prosozialei buruz, ikerlanean ikusten da oro har prestutasun gehiago dagoela nolabaiteko boluntariora egiteko, arropa, tresnak, dirua emateko, norbere etxean errefuxiatu bat hartzeko baino, eta

SOS Arrazakeria Gipuzkoa
Errefuxiatuak: Islak eta pertzeptzioak

Laburpen exekutiboa

portaera prosozial hauek ezohikoagoak dira ikerlaneko partehartzaile kontserbadoreagoetan.



Halaber, ikerlanak ulertu nahi izan du zein mehatxu pertzibitzen den errefuxiatuen etorrerarekin eta zer lotura duen haiekiko jarrera errefusatzailearekin, hala nola gure gizartera asilo eta babes bila datozenen soslaien inguruko usteekin. Ikusi denez, bada irudikapen bat asilo eta babes eskaeraren egilea erlijio musulmanarekin lotzen duena, eta hura kriminalizatzeko nolabaiteko joera duena; hauteman da, halaber, errefuxiatuen lekualdatze behartuak eragiten dituzten faktore ugariak ezkutuan geratzen direla. Ez sexu orientazioagatiko jazarpena ez ingurumen zioek eragindako lekualdatzeak jotzen ditu jendeak nahikotzat: gerra eta gatazka armatuekin lotzen du babesa. Nahiz eta pertzibitzen den mehatxua maila ertain-apalekoa izan, beldur mota hau lotuta dago etorri berriei egozten zaien moralitate, gaitasun, autonomia edo berotasun eskasagoarekin, eta urratsa izaten da deshumanizazio prozesuan, haiekiko errespetu galtzean eta mespretxu eta axolagabekeriako erantzun emozionalen aktibazioan, hala nola eskubide berdintasunen inguruko desadostasunean.

Donostia, 2019ko martxoak 11

